

Manolo Iraolagoitia, *Ikasten* Debabarreneko Esperientzia Eskolako kidea

Nolakoak ziren Eibar eta Debabarrena duela urte batzuk?

Nire lehenengo oroipenak Armeria Eskolan ikasten genuenekoak dira, 1956 urte aldera, ikasketak amaitzear geundenekoak, hain justu. Ikasleok ez genuen non lan egingo genuen pentsatzen, zer fabrika genezakeen baizik. Horregatik, azken ikasturtean, ikasteaz gain, gure etorkizun ekintzailea indartzeko prestatzen ginen.

Eibarren betitik izan dira enpresa txikiak.

Gure garaian, ikasturte bakoitzean 20 ikasle-edo irteten ginen, eta horietatik 6k, gutxi gorabehera, negozioren bat abian jartzen genuen, metalaren arloan gehienbat.

Makina-erremintaren arloa indartsua izan da betidanik gure eskualdean, baina azken aldira indarra galtzen ari ote da?

Ez nago horrekin oso ados. Eibartarrak beti izan dira oso ekintzaileak, nahiz eta azken garaian metalaren munduan aukerak urritu izan. Halere, teknologia berrietan nahiz IKTetan ere ekintzaileak ugari dira. Esaterako, *Ikasten* 4 proiektu sozialetan murgilduta dago eta, beraz, agerikoa da adindunetan ere izaera ekintzaileak presente dirauena.

Zer dela-eta garatu dute eibartarrek izaera ekintzailea?

XV. edo XVI. mendeetatik eibartarrak ekintzaileak izan dira. Zergatik? Bada, bizitzeko ere ez genuelako; ez zegoen lur-sail egokirik. Hala, baserritik bizitzeko esperantzak urriak izaki, zerbait berria fabrikatzeko, merkaturatzeko... beharra zegoen. Oinarrizko behar batetik zetorren, beraz, izaera ekintzailea.

Eta belaunaldi berriek, ba al dute halako beharrik edota dena eginda eman diegu?

Oroitzen dut nola etxeko jatorduetan ekintzaileak genituen beti hizpide: batek hau sortu zuela, besteak halakoa... Gainera, gizon nahiz emakumeak izan dira izaera ekintzailearen euskarri: XIX. mende bukaerako Orbeako argazkiak ikusi besterik ez dago.

Horrez gain, ausartuko naiz esaten Eibarren sortutako enpresa askok, nahiz egun kanpora joanak izan, Eibarko biztanleak baino langile gehiago dituztela. Horrek agerian uzten du eskualdeko ekintzaileen sena eta erakusten du, baita ere, garai hartan gure eskualdea bestek baino aurreratutago zegoela.

Egungo gazteak, berriz, jendeak ondo pasatzera soilik mugatzen direla uste duen arren, askok gogotsu lan egiten dutela uste dut eta sarritan harritu egiten naute lortzen dituzten balentriekin. Horren adibide dira Armeria Eskolako ikasleek bultzatutako enpresak.

Orain, gainera, gazteak askoz hobeto prestatzen dira aurreko belaunaldiekin alderatuz.

Debarreneko ekintzaileak

Halaxe da, bai. Baina eskaria ere handiago da; orain 50 urte genituen ezagupenekin ezer gutxi egin ahalko genuke guk garai hauetan. Gainera, gazteek txikitatik edan dute gurasoen espiritu ekintzaitetik.

Zenioen eibartarrak beharrak egin zituela ekintzaile... Baina, ez da hala izango agian; izan ere, *Ikastenek* behar bati erantzuten al dio?

Ezta gutxiago ere, baina ilusiotik asko du *Ikastenek*. Nik orain bi urte utzi nuen enpresa semearen esku eta orain *Ikastenen* orduan egin ezin nituenak egiten ditut. Giza arloa, letrak, musika... lantzen ditut orain, lehen ez bezala. Horregatik, erretiroa hartzen duen orori gonbita egiten diot Esperientzia Eskolara atxikitzeko.

Beraz, ekintzaile izateak ez du, nahi ala ez nahi, enpresak sortzea esan nahi. Egunerokoan ekintzaile izan daiteke, hortaz.

Noski. Ekintza beti adi dago gertatzen denari, belarriak tente, garaiei aurre hartzeko... Sarean dabil ekintzailea, une oro, gertatzen denari adi.

Beraz, sekretuak ilusioz ekitean datza, adinari erreparatu gabe.

Hala da eta, gainera, *Ikastenek* badu abantaila bat: EBak diputazioak laguntzen ditu, diputazioek Debegesa finantziatzen du, era berean, eta honek gu bultzatzen gaitu. Izan ere, mugimendurako gogoz dagoen jendea osasunez ondo dabilena da eta, beraz, halako ekintzetan xahututako dirua Gizarte Segurantzak aurrezten du. Hortaz, ziur naiz, EBak nahiz aldundiek diru dezente aurrezten dutela adindunak gisa honetako elkarteetan ibilita.

Bukatze aldera, badakigu eskualdea ekintzailea izan dela beti; baina, aurrerantzean izango al da?

Erabat ziur nago, ez dut duda izpirik.

Zuk hala badiozu, sinestea besterik ez dugu guk.

ESALDI AIPAGARRIAK

- Ikasleok ez genuen non lan egingo genuen pentsatzen, zer fabrika genezakeen baizik.
- Ikasturte bakoitzean, 20 ikasletik 6k, gutxi gorabehera, negozio berriren bati ekiten genion.
- Adindunek ere bere horretan mantentzen dute izaera ekintzailea.
- Gazteek gurasoen espiritu ekintzaitetik edan dute euren etxeetan.
- Ekintzailea beti da ekintzaile, belarriak zut bizi da, garaiei aurre hartzeko...
- Eskualdeak izaera ekintzaileari eutsiko dionaz erabat ziur nago.